



2013

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Herri Lanak eta Garraioak 06. <i>Obras Públicas y Transportes</i>	02. Azpiegituren Plangintza eta Artapena 02. <i>Planificación y Conservación de Infraestructuras</i>	510.101 Bide Sarearen Kudeaketa Errepideen Teknologia eta Inbentarioa 510.101 <i>Gestión de la Red Viaria, Tecnología e Inventario de Carreteras.</i>

510101 egitaraua, “*Bide sarearen kudeaketa, errepideen teknologia eta inbentarioa*” izeneko, bide-sarea mantendu, artatu, hobetu eta kudeatzeko egiten diren jardun guztien ardatza da. Lau helburu estrategiko ditu:

1. Errepideen sarearen plangintza egiteko, sarea kudeatzeko eta horri buruzko informazioa lortzeko jardunak eraginkorragoak izatea.
2. Erabiltzaileen mugikortasunaren eta segurtasunaren alde egitea bide-sarea artatuz.
3. Errepideak modu arrazionalen ustiatzen direla eta bide-ondarea defendatuko dela bermatzea.
4. Erabiltzaileen irisgarritasuna eta erosotasuna areagotzea, errepideen foru sarea hobetuz, mantenduz eta modernizatuz.

Horretarako, egitarauak lau zerbitzu edo jardun eremutan banatu da:

- I) Teknologia eta Inbentario Zerbitzua.
- II) Artapen Zerbitzua.
- III) Ustiapen Zerbitzua.
- IV) Mantentze, Hobekuntza eta Modernizazio Zerbitzua.

I. Teknologia eta Inbentarioa.

I.1. Errepide sarearen inbentarioa eta egitura eta funtzioen azterketa.

Ataza honen barruan sartzen dira ezaugarri fisikoak eta funtzionalak, esaterako: geometria; seinalizazio horizontal eta bertikaleko elementuak; balizak eta segurtasuneko

El programa 510101: “*Gestión de la red viaria, tecnología e inventario de carreteras*” constituye el eje sobre el que se articulan todas las actuaciones encaminadas a mantener, conservar, mejorar y gestionar la red viaria con cuatro objetivos estratégicos :

1. Aumentar la eficacia en la planificación, gestión e información de la red de carreteras.
2. Favorecer la movilidad y la seguridad de los usuarios mediante la conservación de la red viaria.
3. Garantizar la explotación racional y la defensa del patrimonio vial.
4. Incrementar la accesibilidad y la comodidad de las personas usuarias mediante la mejora, mantenimiento y modernización de la red foral de carreteras.

A estos efectos, el programa se estructura en cuatro servicios o ejes de actuación:

- I) Servicio de Tecnología e inventario.
- II) Servicio de Conservación.
- III) Servicio de Explotación.
- IV) Servicio de Mejora, Mantenimiento y Modernización.

I. Tecnología e Inventario

I.1. Inventario y Auscultación Estructural y Funcional de la red de carreteras.

En él se incluyen las características físicas y funcionales como por ejemplo Geometría, elementos de Señalización horizontal y vertical, Balizamiento y Elementos de Seguridad, Índice



2013

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Herri Lanak eta Garraioak 06. Obras Públicas y Transportes	02. Azpiegituren Plangintza eta Artapena 02. Planificación y Conservación de Infraestructuras	510.101 Bide Sarearen Kudeaketa Errepideen Teknologia eta Inbentarioa 510.101 <i>Gestión de la Red Viaria,</i> <i>Tecnología e Inventario de</i> <i>Carreteras.</i>

elementuak; nazioarteko erregularatasun adierazkaria; zeharkako marruskadura koefizientea eta deflexioa.

Honen ildotik, errepide sarea aztertzekeo kanpainak amaitutakoan bildutako datuak araztuko dira. Gainera, sareko errepideen zoruari buruzko dokumentuan bildutako datuak aztertuko dira.

Inbentario eta auskultazio datuak (Agenda) kudeatzeko programaren bertsio berria instalatuko zaie erabiltzaile guztiei. Bertsioa berrian datuak eguneratuko dira eta hauek kudeatzeko funtzio egongo dira.

I.2. Ezarri den fabrikako obrak kudeatzeko sistema eguneratzea.

Aurreko inbentarioa egin zenetik egunera arte eraiki diren zubi eta pasarela ikuskatuko dira, horien artapen egoera aztertuko da eta fabrikako obrak kudeatzeko sistemaren barruan sartuko dira horrela beharrezkoak diren artapen obrak zehaztearen eta baloratzearen ondoretarako, eta baita horiek burutzeko unerik egokiena ere.

I.3. Errepideetako GIS-ren eguneratzea

Informazio Geografikoko Sistema sendo eta indartsua garatzeko aukera ematen duten GIS garapenen implementazioaren prozesuekin jarraituko dugu Sailean.

Sail barruan zein sailen artean informazioa trukatzeko aplikazioak prestatzen jarraituko dugu.

de Regularidad Internacional, Coeficiente de Rozamiento Transversal y Deflexión.

En este sentido, una vez finalizadas las campañas de auscultación de la red de carreteras se procederá a la depuración de datos obtenidos. Asimismo se explotarán los datos del documento sobre el Estado de los firmes de la red ya generado.

La nueva versión del programa de gestión de datos de inventario y auscultación (Agenda) se actualizará y dotará de nuevas funcionalidades de gestión de datos, con la instalación de la nueva versión a todos los usuarios.

I.2. Actualización del Sistema de Gestión de Obras de Fábrica.

Se inspeccionarán los puentes y pasarelas construidos desde la realización del anterior inventario, evaluando su estado de conservación e introduciéndolos en el Sistema de Gestión de Obras de Fábrica a fin de determinar y valorar las obras de conservación necesarias, así como el momento idóneo para llevarlas a cabo.

I.3. Actualización del GIS de Carreteras

Continuación de los procesos de implementación de desarrollos GIS específicos que permiten la explotación de datos en un potente Sistema de Información Geográfica del Departamento.

Se continuará con los desarrollos que permitan la interconexión de la información tanto intradepartamental como la de otros departamentos.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Herri Lanak eta Garraioak 06. <i>Obras Públicas y Transportes</i>	02. Azpiegituren Plangintza eta Artapena 02. <i>Planificación y Conservación de Infraestructuras</i>	510.101 Bide Sarearen Kudeaketa Errepideen Teknologia eta Inbentarioa 510.101 <i>Gestión de la Red Viaria, Tecnología e Inventario de Carreteras.</i>

I.4. Sareko zoladuren datutegia egitea.

Gure errepideen sareko zoladuren eraketaren datutegia eratzeak eragiketa jakin batzuk egin beharra eskatzen du eta horien artean daude zundaketa edo kata bidezko laginak hartzea, eraketa horren azterketak, hala ikuspenarekin egiten dena nola teknikoak, eta datu guztiak horren kudeaketarako aukera ematen duen aplikazio informatiko baten sailkatzea eta sartzea.

I.5. Kudeatzeko tresnen zabalkuntza.

- Zoladurak

Tresna berriak prestatzen ari gara zoladurak kudeatzeko aplikaziorako, erabilgarriagoa izan dadin.

- Egiturak.
 - Egituren datuak kudeatzeko SGP aplikazioa eguneratuko da. Tresna berriak sortuko dira informazioa kudeatzeko ahalmena gehitzeko eta hobetzeko.
 - Web aplikazio bat sortuko da egituren datu-basea kontsultatzeko. Aplikazio berria gaur egun erabiltzen den SGP aplikazioaren osagarria izango da.

Errepide Sarearen Inbentarioa edukita, kudeaketa-tresna informatikoen bitartez sarea oso-osorik arakatu daiteke, hau da, errepideetako elementu guztiak, eta horri esker jarduketan plan orokorrak prestatu daitezke egoera-adierazleak finkatu ondoren. Kudeaketako tresna tekniko-ekonomikoak dira, eta beraien helburu nagusiak inbertsioak optimizatzea eta jarduketan arteko

I.4. Confección de una Base de Datos de los firmes de la red

La formación de una Base de Datos sobre la constitución de los firmes de nuestra red de carreteras, exige un conjunto de operaciones entre las que se encuentran la toma de muestras mediante sondeos o catas, análisis visual y técnico de su composición, clasificación e introducción de todos los datos en una aplicación informática que permita su gestión.

I.5. Ampliación de las herramientas de gestión.

- Firmes.

Se desarrollan algunas funcionalidades nuevas del gestor de firmes con las que ampliar su utilidad o mejorar la accesibilidad a las funcionalidades existentes.

- Estructuras.
 - Actualización de la Aplicación de Gestión de datos de estructuras SGP. Se desarrollarán nuevas funcionalidades que aumenten y mejoren su capacidad de gestión de la información.
 - Nuevo desarrollo de una Aplicación Web de Consulta de la base de datos de estructuras. Se trataría de una aplicación complementaria con la aplicación SGP actualmente disponible.

La disponibilidad del Inventario de la Red de Carreteras, permite, mediante la implantación de herramientas de gestión de tipo informático, el tratamiento a nivel de la red en su conjunto de los diversos elementos de la carretera, posibilitando la realización de Planes de actuación general una vez fijados los Indicadores de estado. Se trata de herramientas de gestión técnico-económicas a nivel de red y

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Herri Lanak eta Garraioak 06. <i>Obras Públicas y Transportes</i>	02. Azpiegituren Plangintza eta Artapena 02. <i>Planificación y Conservación de Infraestructuras</i>	510.101 Bide Sarearen Kudeaketa Errepideen Teknologia eta Inbentarioa 510.101 <i>Gestión de la Red Viaria, Tecnología e Inventario de Carreteras.</i>

lehentasunak ezartzea dira.

su objetivo primordial es la Optimización de las Inversiones y la priorización de las actuaciones.

Baliabide horiek garatu eta abiarazi dira sareko elementuen egungo benetako egoerara egokitzeko asmoarekin.

Se procede al desarrollo y puesta a punto de dichas herramientas al objeto de ajustarlos al estado real de los elementos de la red.

I.6. Proiektuak gainikustea.

I.6. Supervisión de Proyectos.

Proiektuen gainikuskapena administrazioko prozedura, onespena eta horren ondoko kontratazioa egiteko beharrezko tramite bezala azaltzen da arauketan.

La Supervisión de los Proyectos figura en la reglamentación como una de los trámites precisos en su tramitación administrativa, aprobación y posterior contratación

Berrikuspen eskuliburua eguneratzea, bide segurtasunerako prozedura gaineratuta edota eguneratuta.

Actualización del Manual de supervisión incorporando y/o actualizando el Procedimiento de Seguridad Vial.

Sailaren GISekiko konexioa egingo da ikuskatutako proiektuen datuen laburpen geruza baten bidez.

Se realizará la conexión con el GIS del Departamento a través de una capa resumen de datos de los proyectos supervisados.

I.7. Obra unitate berriak eta material berriak aztertzea eta analizatzea errepideetan erabiltzeko.

I.7. Estudio y análisis de nuevas unidades de obra y nuevos materiales de potencial aplicación en carreteras.

Arlo hau oso dinamikoa da gaur egungo egoera teknologikoan, bai ekonomiaren aldetik, bai ingurumenaren aldetik.

Es éste un campo de gran dinamismo en la situación tecnológica actual, tanto por los aspectos económicos como medioambientales que conlleva.

Gure errepide sarean ondokoak erabiltzeko aukera aztertuko da: labe garaiko zepa granular ehoa obra unitatean, zepa-legarra eta altzairu-fabriketako zepak errepideetako oinarri-geruzetan eta zoruan, etab.

Se estudia y analiza la posibilidad de empleo en nuestra red de carreteras de la escoria granulada molida de alto horno, mediante su inclusión en la unidad de obra grava escoria, escorias de acería en capas de base y de rodadura de firmes de carreteras, etc.

I.8. Obra amaierako dokumentuak.

I.8. Documentos Fin de Obra (DFO)

Obrak betearazten diren bitartean sortzen diren eta horren bidez erabilgarrian baliagarriak izango diren datu garrantzitsuak biltzea.

Recopilación de los datos relevantes que se generan durante la ejecución de las obras y que resultan de utilidad durante su vida útil.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Herri Lanak eta Garraioak 06. <i>Obras Públicas y Transportes</i>	02. Azpiegituren Plangintza eta Artapena 02. <i>Planificación y Conservación de Infraestructuras</i>	510.101 Bide Sarearen Kudeaketa Errepideen Teknologia eta Inbentarioa 510.101 <i>Gestión de la Red Viaria, Tecnología e Inventario de Carreteras.</i>

Datutegi digitalizatuak eratuko dira interesa duten zerbitzu edo pertsona guztien eskura egon daitezen on line eran kontsultatzearen ondoretarako. Halaber, dokumentazio moduan balio du burutu den obrari dagokionez.

Obra amaierako dokumentuetako datuak ustiatzeko DOKULAN izaneko berariazko aplikazioa dago. Aplikazioak berariazko GIS modulu bat dauka eta haren laburpen datuak Sailaren GISetik kontsultatu ahalko dira.

Aplikazio horretan datuak eguneratu eta kudeaketa funtzio berriak garatuko dira.

I.9. Errepideetako lokatzen errausketako errautsen erabilera ikertzea

Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoarekin batera, lokatzen errausketatik ateratako errautsen ikerketari ekingo zaio, errepide lanetan aprobetxatzeko balizko eremuak aztertzeko. Laborategiko lanak egin ondoren entseguak egingo dira proiektatutako obra unitateek errepideetako benetako egoeretan nola erantzungo luketen argitzeko.

I.10. Herri Lan eta Garraioak Saileko errepide sareetako lanetan erabilitako material nagusien magnitudeen ikerketa. Haien datu base bat eratzea eta aplikazio informatiko bat garatzea haiek aztertu eta laburpenak, estatistikak, etab. atera ahal izateko.

Se confeccionan bases de datos digitalizadas al objeto de que puedan ser consultadas en línea por aquellos servicios o personas interesadas. Sirve igualmente de documentación en la obra ejecutada.

Para la explotación de los datos de los DFO se dispone de una aplicación específica denominada DOKULAN. La aplicación incluye un módulo GIS específico cuyos datos resumen serán consultables desde el GIS del Departamento.

Se actualizarán datos y desarrollarán nuevas funcionalidades de gestión en dicha aplicación.

I.9. Estudio del empleo cenizas de incineración de lodos en carreteras

En cooperación con el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, se abordará el estudio de las cenizas procedentes de la incineración de lodos al objeto de analizar sus potenciales campos de aprovechamiento en las obras de carreteras. Una vez concluidos los trabajos de laboratorio, se realizarán tramos de ensayo a fin de comprobar la respuesta de las unidades de obra proyectadas en situaciones reales de la carretera.

I.10. Estudio de las magnitudes de los principales materiales usados en las obras de la red de carreteras del Departamento de Obras Públicas y Transportes. Confección de una Base de datos de las mismas y desarrollo de una aplicación informática que permita su análisis y obtención de resúmenes, estadísticas, etc.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Herri Lanak eta Garraioak 06. <i>Obras Públicas y Transportes</i>	02. Azpiegituren Plangintza eta Artapena 02. <i>Planificación y Conservación de Infraestructuras</i>	510.101 Bide Sarearen Kudeaketa Errepideen Teknologia eta Inbentarioa 510.101 <i>Gestión de la Red Viaria, Tecnología e Inventario de Carreteras.</i>

I.11. Inbertsioen kostua zenbatesteko tresna informatikoa sortuko da, Zuzendaritzak inbertsioak erraz kudeatzeko eta erkatzeko erabil dezan.

II. Artapena

Helburu hauek biltzen ditu:

1. Artapen integrala.
2. Aparteko artapena.
3. Sistemaren eragiketa (gainegitura).
4. TCASetan jardutea kostu baxuko neurriekin.
5. Lanak.

II.1. Artapen integrala.

Artapen integralaren barruan oinarritzko bi atal sartzen dira:

- a) Zirkulazio eta segurtasun baldintza normalak lortzeko behar diren lanak, zirkulazio normala lortzeko segurtasunari dagokionez egokiak eta funtzionalak direnak, eta horien barruan sartzen dira, besteak beste, elementu kaltetuak ordezteak, horien guztien jardunbide eta funtzionamendu egokia mantentzea eta Errepideen Foru Sarean gertatu diren larrialdi eta istripuei jaramon egitea.

- b) Bideak neguan.

Lehentasuneko Sareko bideak neguan era egokian zirkulatzeko moduko baldintzetan mantentzeko egiten diren jarduketak biltzen ditu. Burutzen diren jarduketak elurra kentzea eta aurrearretazko eta zaintzako jarduketak egitea izaten dira.

I.11. Se desarrollará una herramienta informática para la estimación de costos de inversiones, a fin de dotar a la Dirección de herramientas ágiles de gestion y de comparación de inversiones.

II. Conservación.

Comprende los siguientes campos de actuación:

1. Conservación Integral.
2. Conservación Extraordinaria.
3. Operación del Sistema (Superestructura).
4. Actuación en TCAS con medidas de bajo coste.
5. Obras.

II.1. Conservación Integral.

La conservación integral alcanza dos apartados básicos:

- a) Trabajos necesarios para mantener la vía en unas condiciones adecuadas de seguridad y funcionalidad tendentes a una normal circulación, incluyendo, entre otros, la sustitución de elementos dañados, el mantenimiento del correcto funcionamiento de cada uno de ellos, así como la atención de emergencias y accidentes ocurridos en la Red Foral de Carreteras.

- b) Vialidad invernal.

Comprende las actuaciones destinadas a mantener las vías pertenecientes a la Red Prioritaria en unas condiciones adecuadas a la circulación en la temporada invernal. Las actuaciones llevadas a cabo son la retirada de nieve y la realización de tratamientos preventivos y curativos.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Herri Lanak eta Garraioak 06. Obras Públicas y Transportes	02. Azpiegituren Plangintza eta Artapena 02. Planificación y Conservación de Infraestructuras	510.101 Bide Sarearen Kudeaketa Errepideen Teknologia eta Inbentarioa 510.101 Gestión de la Red Viaria, Tecnología e Inventario de Carreteras.

Arlo honen barruan 2013. urterako aurreikuspenak hauek dira:

- 1, 2 eta 3. aldeetako artapen integralerako kontratuekin jarraitzea.
- Artapen eta ustiapen kontratuaren jarraipena, kapazitate altuko sarearen mantenua eta operazioa.
- Siloak eraikitzea eta obren jarraipena egiteko kasuan kasuko laguntza teknikoak betearaztea.
- Fabrika-obrak artatzeko plana.
- Bide segurtasuneko jarduketak egitea kostu gutxiko neurriak aplikatuz.
- Bizkaiko Errepide Sarean lur mugimenduak ebaluatzeko laguntza teknikoko kontratuekin jarraitzea.
- Errepideetan unean uneko laguntza teknikoa ematea. 1,2 eta 3 aldeak.
- Artapen Zerbitzuari laguntza teknikoa ematea, ezarpen telematikorako proiektuak gauzatzeko eta bideen neguko artapena bideratzeko. Halaber, Edukiera Handiko Sarearen kontratua duen zuzendaritzari laguntza teknikoa ematea.
- Semaforoak dituzten gurutzeetarako ekipoen hornikuntza, instalazioa eta artapena.
- Zubi eta biaduktoen kontrol, jarraipen eta diagnostikoa egiteko L.T.
- Artapen Zerbitzurako segurtasun eta osasunerako L. T.

Las previsiones para el año 2013 dentro de este campo son:

- Continuación de los contratos de la conservación integral de las Áreas 1, 2 y 3.
- Seguimiento del contrato de Conservación y Explotación, Mantenimiento y Operación de la Red de Alta Capacidad.
- Construcción de Silos y las correspondientes Asistencias Técnicas para el seguimiento de las obras.
- Plan de conservación de obras de fábrica.
- Actuaciones de Seguridad Vial con medidas de bajo coste.
- Continuación del contrato de Asistencia Técnica para evaluación de desmontes en la Red de Carreteras de Bizkaia.
- Asistencias Técnicas puntuales de carreteras. Areas 1,2 y 3
- Asistencia Técnica al Servicio de Conservación para la ejecución de proyectos de implementación telemática, vialidad invernal y asistencia técnica a la dirección del contrato de la Red de Alta Capacidad.
- Suministro, instalación y conservación de equipos de regulación de cruces semafóricos.
- A.T. para el Control, Seguimiento y Diagnóstico de puentes y viaductos.
- A.T. Seguridad y Salud al Servicio de Conservación.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Herri Lanak eta Garraioak 06. <i>Obras Públicas y Transportes</i>	02. Azpiegituren Plangintza eta Artapena 02. <i>Planificación y Conservación de Infraestructuras</i>	510.101 Bide Sarearen Kudeaketa Errepideen Teknologia eta Inbentarioa 510.101 <i>Gestión de la Red Viaria, Tecnología e Inventario de Carreteras.</i>

- Hitzarmena Basalan enpresarekin, bideen neguko kanpainetarako.
- Aldi berean unean uneko lanak burutuko dira Errepideen Foru Sareetan.

- Convenio con la empresa Basalan para las campañas de Vialidad Invernal.
- También se llevarán a cabo trabajos puntuales en las Redes de Carreteras Forales.

II.2. Aparteko artapena.

Azpiegiturak jardun-egoera ezin hobean mantendu beharrak —estandarren konponketa funtzionalerako, hobekuntzarako edo doikuntzarako obrak egiten diren neurrian— hormak eraiki beharra edo alde ezegonkorretan sendoketa lanak egin beharra dakar.

II.2. Conservación Extraordinaria.

La necesidad de mantener las infraestructuras en estado de operación, en tanto en cuanto se van ejecutando las obras de regeneración funcional, mejora o habilitación de estándares, exige la construcción de muros u obras de consolidación correspondientes a zonas inestables.

II.3. Sistemaren Eragiketa. (Gainegitura).

Sistemaren Eragiketaren Arloan, 2013rako, honako helburuak planteatzen dira:

1. Bizkaiko garraioaren mugikortasuna kudeatzeko telekomunikazioetako instalazioak eta azpiegiturak mantentzea eta ustiatzea.
2. Mugikortasunaren Kudeaketa Zentroaren Esku-eragiketaren mantenua, ustiapena eta eragiketa Malmasinen, urteko egun guztietan, 24 orduz, honako helburuekin:
 - Errepide sareko tunelei (Malmasin, Mamariga, Sodupe eta Gordexola) trafikoari arreta eskaintzea.
 - Gorabeheren deiak eta abisuak hartzea, eskumena duten agenteei horien berri emanez, baita trafikoaren egoeraren berri ematea informazio zerbitzariaren bidez.

II.3. Operación del Sistema. (Superestructura).

En el Area de Operación del Sistema para el año 2013 se plantean los siguientes objetivos:

1. Mantenimiento y explotación de las instalaciones e infraestructuras de telecomunicación para la gestión de la movilidad del transporte en Bizkaia.
2. Mantenimiento, explotación y operación de la Operación del Centro de Gestión de la Movilidad en Malmasín durante las 24 horas de todos los días del año con los siguientes objetivos.
 - Atender el tráfico de los túneles de la red de carreteras (Malmasín, Mamariga, Sodupe, Ibarrekolanda y Gordexola).
 - Atender las llamadas y avisos de incidentes, comunicándolos a los agentes competentes así como la difusión del estado del tráfico a través del servidor de información.



2013

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Herri Lanak eta Garraioak 06. <i>Obras Públicas y Transportes</i>	02. Azpiegituren Plangintza eta Artapena 02. <i>Planificación y Conservación de Infraestructuras</i>	510.101 Bide Sarearen Kudeaketa Errepideen Teknologia eta Inbentarioa 510.101 <i>Gestión de la Red Viaria, Tecnología e Inventario de Carreteras.</i>

- Errepide sareko argi, semaforo eta instalazio telematikoen gorabeherei arreta eskaintzea, baita tuneletako aireztapen instalazio, suaren kontrako, interfonia, megafonia eta telebista instalazioei ere.
- Momentu oro trafikoaren egoera ezagutzea, denbora errealean.

- Atender las incidencias de las instalaciones de alumbrado, semáforos y de las instalaciones telemáticas en la red de carreteras, así como las instalaciones de ventilación, contra-incendios, interfonía, megafonía y CCTV en los túneles.
- Conocer en todo momento el estado del tráfico en tiempo real.

II.4. TCAS kostu gutxiko neurriak aplikatuz

- Trafiko moteltzeak egiten jarraitzea.
- Metropoliaren Aldean mehelina igarotzeko euspen-sistemak modernizatzea.
- Motozaleak babesteko langak instalatzea.

II.4. TCAS con medidas de bajo coste

- Continuación de realización de calmados de tráfico.
- Modernización de Sistemas de Contención en los pasos de mediana en el Área Metropolitana.
- Instalación de barreras de protección para motoristas.

II.5 Obrak.

Halaber, errepideen artapenetik, oro har errepideetako elementuak ukitzen dituzten era askotako obrak burutuko dira.

2013 ekitaldian zehar era askotako jarduketak burutuko dira, adibidez jarduketak tunel eta zubietan eta hobekuntza orokorrak errepide batzuetan.

II.5 Obras.

También, desde la Conservación de Carreteras se acometerán diferentes obras que afectan a elementos de las carreteras de forma generalizada.

Se llevarán a cabo a lo largo del 2013 actuaciones de diversos tipos, tales como actuaciones en túneles y en puentes y mejoras generales de algunas carreteras.

III. Ustiapena

Ustiapenaren atazak dira bidea defendatzeko eta era egokiagoan eta hobeto erabiltzeko egiten diren jarduketa guztiak eta, jakina, horien barruan daude sarbideen antolamendua eta herri jabaritzako, zortasuneko eta ukipeneko aldeetan kokatuta dauden esparru mugakideen erabilera, hau da,

III. Explotación.

Corresponde a Explotación aquellas actuaciones encaminadas a la defensa de la vía y su más adecuado y racional uso, incluyéndose naturalmente la ordenación de los accesos y el uso de los terrenos colindantes situados en las zonas de dominio público, servidumbre y afección para evitar



2013

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Herri Lanak eta Garraioak 06. Obras Públicas y Transportes	02. Azpiegituren Plangintza eta Artapena 02. Planificación y Conservación de Infraestructuras	510.101 Bide Sarearen Kudeaketa Errepideen Teknologia eta Inbentarioa 510.101 <i>Gestión de la Red Viaria,</i> <i>Tecnología e Inventario de</i> <i>Carreteras.</i>

horietan kalteak eragingo dituzten jarduketak ekiditeko eta euren funtzioak bete ditzaten, hots, segurtasun, erosotasun eta azkartasun baldintzarik egokienetan erabiliak izan daitezten.

Zerbitzu honetan egiten diren jarduerak hauek dira:

- 1) Baimenak:
 - Tramitazioa.
 - Garraio bereziak.
 - Tasak, herri prezioak eta fidantzak.
- 2) Kirol jardueri buruzko txostenak.
- 3) Bideetako ondarearen erabilera eta babesaren arloko jarduketak:
 - Kalteak ongitzea eta konpontzea.
 - Errepideei buruzko arautegia ez betetzeagatik legea babesteko espedienteak. (Aldez aurretiko jarduketak eta zigortzeko espedienteak)
- 4) Ondare erantzukizuna.

IV. Hobekuntza, mantenua eta modernizazioa

Zirkulaziorako egoera txarrak zuzentzea dute helburu, edota elementuak berritzea, bai hobekuntzak eginez, bai elementuak egokitu edo modernizatuz, beti ere garatuz doan arautegi berriaren arabera.

Helburuak hauek dira:

1. Programatu diren hobekuntzak.

actuaciones que las perjudiquen de forma que respondan a su función que no es otra que su uso en las mejores condiciones de seguridad, comodidad y fuidez posibles.

Las actividades que se desarrollan en este Servicio son las siguientes:

- 1) Autorizaciones:
 - Tramitación.
 - Transportes especiales.
 - Tasas, precios públicos y fianzas.
- 2) Informes sobre pruebas deportivas.
- 3) Actuaciones sobre el uso y protección del patrimonio viario:
 - Resarcimiento de daños.
 - Expedientes relativos a la protección de la legalidad por incumplimiento de la normativa de carreteras. (Actuaciones Previas y Expedientes Sancionadores)
- 4) Responsabilidad patrimonial.

IV. Mejora Mantenimiento y Modernización.

Destinadas a la corrección de las situaciones desfavorables para la circulación, la renovación de elementos provocados por la introducción de mejoras y/o por la adaptación o modernización de los elementos, de acuerdo con la nueva normativa que se va desarrollando.

Comprende los siguientes objetivos:

1. Mejoras programadas.



2013

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Herri Lanak eta Garraioak 06. Obras Públicas y Transportes	02. Azpiegituren Plangintza eta Artapena 02. Planificación y Conservación de Infraestructuras	510.101 Bide Sarearen Kudeaketa Errepideen Teknologia eta Inbentarioa 510.101 Gestión de la Red Viaria, Tecnología e Inventario de Carreteras.
2. Estandarrak gaitzea.	2. Habilitación de estándares.	
3. Hobekuntza funtzionala.	3. Mejora funcional.	
4. Bide segurtasuneko hobekuntzak.	4. Mejoras de Seguridad Vial.	
5. Trafikoa arintzea.	5. Calmado de tráfico.	
6. Mantenua.	6. Mantenimiento	
7. Laguntza teknikoak.	7. Asistencias Técnicas.	
IV.1. Programatu diren hobekuntzak	IV.1. Mejoras programadas	
Programatu diren hobekuntzen xedea errepideetako elementuen ezaugarriak hasierako jatorrizko egoeran berriz jartzea da.	Las mejoras programadas pretenden poner en situación inicial las características de los elementos de las carreteras.	
IV.2. Estandarren doikuntza.	IV.2. Habilitación de estándares.	
Errepidearen zeharkako ebakidura hobetzeko eta, errepidearen kategoriaren arabera, edozein foru errepideren zeharkako ebakidurak bete behar dituen gutxieneko estandarrak lortzeko lanak dira. Baliteke, gainera, abaguneaz baliatu eta taxuaren zuzenketaren bat egitea.	Consisten estas operaciones en la mejora de la sección transversal de la carretera hasta alcanzar los estándares mínimos exigidos en la sección transversal de cualquier carretera foral, en función de la categoría a que pertenece. También pudiera darse el caso de que se aprovechara para realizar alguna rectificación puntual del trazado.	
IV.3. Hobekuntza funtzionalak.	IV.3. Mejoras funcionales.	
Egin beharreko hobekuntza bakar-bakarrik taxua eta/edo haren eraketaren ezaugarriak zuzentzean datza (lotuneak batez ere), zeharkako ebakidura eginda baitago.	Consisten estas operaciones en que la mejora supone solo la rectificación del trazado y/o características de su configuración, (principalmente conexiones), ya que la sección transversal ya se encuentra conseguida.	
IV.4. Bide segurtasuneko hobekuntzak.	IV.4. Mejoras de Seguridad Vial.	
Gaizki bideratutako gurutzaguneak edota (hirigintza garapenagatik) trafikoaren ezaugarriak aldatu direnekoak eraldatuko dira, hiriko segurtasun eta integrazio hobea ematen duten errotondak egiteko.	Consisten estas operaciones en la transformación de intersecciones deficientemente canalizadas o que las condiciones de tráfico se han modificado (por el desarrollo urbanístico) en rotondas que aumenten la seguridad e integración urbana.	

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Herri Lanak eta Garraioak 06. <i>Obras Públicas y Transportes</i>	02. Azpiegituren Plangintza eta Artapena 02. <i>Planificación y Conservación de Infraestructuras</i>	510.101 Bide Sarearen Kudeaketa Errepideen Teknologia eta Inbentarioa 510.101 <i>Gestión de la Red Viaria, Tecnología e Inventario de Carreteras.</i>

IV.5. Trafikoa arintzea.

Udalerriekin itundutako jarduketak izango dira (hitzarmenak). Hortaz, ahaleginak egingo dira, hiriguneetan, toki errepideetako trafikoa arintzeko, hirigunea oinezkoentzako alde bihurtzeko eta bertatik igarotzen diren ibilgailuen abiadura moteltzeko. Horrela, aipatutako tarteen hiri antolamendua izango dute eta bide segurtasuna areagotuko dute; udalekin hizpatuko dira hiri tarteetarako konponbide egokienak.

IV.6. Mantenua

Errepidea osatzen duten elementuen mantenua egiteko beharrezkoak diren lanak, eta elementu horiek nahi den kalitatea izatea lortzea, hain zuzen ere horien narriadura gerta daitekeenean trafiko eta/edo eguraldiaren ondorioz.

IV.7. Laguntza teknikoak

Laguntza teknikoa emango da Bizkaiko errepideak hobetzeko eta modernizatzeko lanen proiektuak idazteko eta gauzatzeko, eta errepide horietako istripu-tasa aztertuko da Europar Batasunak bideko segurtasunaz emandako zuzentaraua betetzeko.

Gainera, laguntza teknikoa emango da obra guztiak kontrolatzeko eta segurtasunaren eta osasunaren inguruko arau guztiak betetzeko.

2012an abian zeuden laguntza tekniko hauek burutuko dira:

- Hobekuntza ikerketak eta proiektuak idazteko L.T.

IV.5. Calmado de tráfico.

Consisten en actuaciones concertadas con los municipios (Convenios) por lo que se procurará, en cascos urbanos, que las carreteras locales pierdan su intensidad de tráfico favoreciendo la peatonalización del casco urbano. y la disminución de velocidad de los vehículos. Estas actuaciones están destinadas a dotar de configuración urbana a estos tramos e incrementar la seguridad vial en ellos , concertando con los ayuntamientos las mejores soluciones en su tramo urbano.

IV.6. Mantenimiento

Trabajos necesarios para el mantenimiento de los elementos constitutivos de la carretera con calidad deseable, cuya degradación se puede producir por el tráfico y/o climatología.

IV.7. Asistencias Técnicas

Asistencias técnicas para redacción de proyectos y ejecución de obras de mejora y modernización y el estudio de la accidentabilidad en la Red de carreteras de Bizkaia en cumplimiento de la Directiva Europea de Seguridad Vial.

Asi como aquellas necesarias para llevar a cabo el control de las obras y el cumplimiento de la Normativa existente en materia de Seguridad y Salud.

Se continuarán las asistencias técnicas en curso en el año 2012.

- A. T. Redaccion de Estudios y Proyectos de Mejora.



2013

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
06. Herri Lanak eta Garraioak 06. Obras Públicas y Transportes	02. Azpiegituren Plangintza eta Artapena 02. Planificación y Conservación de <i>Infraestructuras</i>	510.101 Bide Sarearen Kudeaketa Errepideen Teknologia eta Inbentarioa 510.101 <i>Gestión de la Red Viaria,</i> <i>Tecnología e Inventario de</i> <i>Carreteras.</i>

- Laguntza teknikoa errepideak mantentzeko eta hobetzeko lanen obra zuzendariari eta kalitatearen kontrolaren arduraduneari.
- Obretan segurtasuna eta osasuna bermatzeko L.T.

Beste alde batetik, 2013an ondoko laguntza tekniko hauek eman beharko dira:

- Laguntza teknikoa errepideak hobetzeko eta mantentzeko proiektuak idazteko.

- A.T. a la Dirección de Obra y Control de Calidad en las obras de Mantenimiento y Mejora.

- A.T. seguridad y salud en obras.

Por otro lado sera necesario poner en marcha las siguientes asistencias técnicas en 2013:

- A.T. redacción de Proyectos de Mejora y Modernización.